


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Geografia

# USE 2019

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)





***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

**1. Ariketa praktikoa:** 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

**2. Gai bat garatzea:** 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

**3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea:** 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

**1. Prueba práctica:** 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

**2. Desarrollo de un tema:** 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

**3. Definición de conceptos geográficos:** 2 puntos.


Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



## A AUKERA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko adin-piramidearen iruzkina. (4 puntu)



Iturria: **Estatistikako Institutu Nazionala (INE), 2019**

2. Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Espainia mediterraneoan. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko, 5 lerro gehienez):

- Baliabide naturala (0,5 puntu)
- Frankizia (0,5 puntu)
- Megalopolia (0,5 puntu)
- Klima (0,5 puntu)



## B AUKERA

1. Espainiako mapa politikoa (autonomia-erkidegoak eta probintziak lokalizatzea). (4 puntu)



2. Euskal Autonomia Erkidegoko klima mota nagusien eta eremu klimatiko bakoitzari dagokion landaretza moten sintesia. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko, 5 lerro gehienez):

- Paisaia (0,5 puntu)
- Ibai-erregimena (0,5 puntu)
- Nekazaritzako ustiatzea (0,5 puntu)
- Plataforma logistikoa (0,5 puntu)



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki, hauek hartuko dira kontuan:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

### A AUKERA

#### 1. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

– Espainiako populazioaren gaur egungo piramideari buruzko iruzkina egitea eta aurreko aldiak batekin edo etorkizuneko iragarpenetako batekin konparatzea.

*Ikaskuntza-estandar ebaluagarriak, PCI/12/2019 Agindua*

6.– Biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzea (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, azaltzea zein diren desberdintasun ekonomikoan, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arrazoiak eta ondorioak.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauek aztertzea balioetsiko da:

- Piramideak duen itxura
- Adineko populazioaren artean: populazio femeninoaren pisu handiagoa, bizi-itxaropen handiagoa izatearen ondorioz. 75-79 urtekoen barran, gerrak eragindako jaiotza-tasa txikiagoa.
- Helduen artean: *baby boom* (1958-1977) aldiaren jaiotako belaunaldien zabaltasuna
- Urte horietatik aurrera, belaunaldien murriztapena, emankortasunaren eta jaiotza-tasaren jaitsierak eraginda
- Jaiotza-tasaren berreskuratze txikia nabari da 5-14 urtekoen tartean. Berreskuratze horren kausak.
- Azken beharakada, krisia eta adin emankorreko belaunaldi gutxiago.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

- Nekazaritzako, abelazkuntzako eta basogintzako jarduerak identifikatzen ditu.
- Espainiako nekazaritza-paisaien ezaugarriak aztertzen ditu.

*Ikaskuntza-estandar ebaluagarriak, PCI/12/2019 Agindua*

4.- *Jarduera ekonomikoak eta haien eragiten dituzten eraldaketak aztertzea, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa adieraztea, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzea, egungo joerak azaltzea eta joera horiek Europako testuinguruan baloratzea.*

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauek aztertzea balioetsiko da:

- Mediterraneo itsasoaren kostaldea eta kostaldeaurrea, Guadalquivir harana eta Balear uharteak hartzen ditu.
- Nekazaritza-egituraren ezaugarriak: biztanleriaren murriztapena nekazari-exodoaren eraginez; kostako baratze-lurretan izan ezik, populatze sakabanatu tradizionalak pilatzeko joera du. Ustiategien tamainari dagokionez, laborantza ureztatuko inguruetan minifundioa da nagusi; Valentziako eta Murziako lehorreko lurretan, ustiategiak txikiak eta ertainak dira, ertainak Katalunian eta handiak Andaluziako mendebaldean; erabilera nagusia nekazaritza da.
- Lehorreko laborantzak (zerealak, mahatsondoa, olibondoa, arbendolondoa) Guadalquivir haranean, kostalde aurreko inguru menditsu eta gorabeheratsuetan eta Mallorcaren barnealdean.
- Laborantza ureztatuetan (haien alde jokatzen duten faktoreak jar daitezke), hauek dira nagusiak: aire zabaleko eta plastikopeko baratzezaintza goiztiarra, frutikultura mediterranea (zitrikoak, fruta hezurdun eta pipitadunak) eta fruitu tropikalak (txirimoiak, ahuakatea, mangoa).
- Behi eta txerrien abeltzaintza nagusi Katalunian, ardiak lehorreko lurretan eta abelburu basatiak Guadalquivir ertzetan.
- Baso-ustiapienak garrantzi txikia du, Huelvako eukaliptoak izan ezik.

### 3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna hartuko da kontuan.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Baliabide naturala:** Giza beharrianak asetzeko hartzen edo erabiltzen den ingurune naturalaren zati edo osagai bat.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

**Frankizia:** Juridikoki desberdina den enpresa baten establezimendu-katea. Kontratu baten bidez, frankiziatzaileak kontzesionarioei marka bat edo merkataritza-formula bat ustiatzeko lizentzia ematen die diru kopuru baten truke, eta laguntza, publizitatea, etab. ematen dizkie.

**Megalopolia:** Eskualdez gaindiko hedadura duen hiri-aglomerazioa. Hiriko zenbait elementuk osatzen dute (metropolialdeak, konurbazioak, hiri ertain eta txikiak...) eta bakoitzak bere eginkizunak ditu. Elementu horiek hazi egiten dira, eta hiri-ingurune ez-jarraitu bat osatzen dute, baina haustura garrantzitsurik gabe.

**Klima:** Leku bateko atmosferaren batez besteko egoera, leku horretan urte osoan gertatzen diren eguraldi moten ohiko segidaren eraginez. Klimaren ezaugarriak modu estatistikoan zehazten dira batez besteko balioak kalkulatuta. Haien fidagarritasuna lortzeko, epe luzeko behaketak behar dira.

### B AUKERA

#### 1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

- Espainiako lurralde-antolakuntza mapa batean lokalizatzea
- Autonomia-erkidegoak bereiztea

*Ikaskuntza-estandar ebaluagarriak, PCI/12/2019 Agindua*

8.– Euskadiko eta Espainiako antolamendu politiko eta administratiboaren oinarriko elementuak deskribatzea, autonomia-erkidegoetan eta haietako batzuen barruan aberastasunaren banaketari dagokionez dauden kontrasteak hainbat iturri eta adierazle erabiliz adieraztea, eta Espainian eta European eskualdeak garatu eta kohesionatzeko politiken adibideak ematea.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Autonomia-erkidegoak ondo zedarritzea eta probintzia bakoitzeko lokalizazio zuzena ere balioestea.

#### 2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

- Espainiako klimak deskribatzea faktore eta elementu bereizgarriak zerrendatuz

*Ikaskuntza-estandar ebaluagarriak, PCI/12/2019 Agindua*

3.– Ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak ezagutzea, Espainian eta Euskadin dauden multzo naturalak ezagutzea, multzo horiek mapan lokalizatzea, haien elementuak eta dinamika identifikatzea, haien interakzioak azaltzea eta giza ekintzak haietan duen zeregina balioestea.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Mota guztiak desberdindu eta kokatu behar dira. Haietako bakoitza lokalizatzeaz eta zuzen izendatzeaz gainera, haien elementuak, erregimenak eta faktoreak adierazi behar izango dira.



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Klima ozeanikoa: EAEko isurialde atlantikoan. Urteko 800 mm baino gehiagoko prezipitazioak, erregularrak. Temperatura leunak, oszilazio termiko txikia. Baso hostoerorkorra, neurri batean birpopulaketek ordeztua.
- **Trantsiziozko klima ozeanikoa: Arabako erdiko eskualdeak. Prezipitazioak, urtean, 600-900 mm bitartekoak. Urteko batez besteko tenperatura baxuagoa, neguak hotzagoak. Urteko oszilazio termikoa handiagoa da.** Pago-basoa, zenbait haritz-mota eta pinu naturalak.
- Klima mediterraneo kontinentalizatua: Arabako Errioxan. Urteko prezipitazioak 600 mm baino gutxiagokoak; udan, lehorrea. Urteko oszilazio termikoa handiagoa. Baso hostoiraunkorra.

### **3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.**

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna hartuko da kontuan.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Paisaia:** Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera baita faktore naturalen eta edota giza faktoreen ekintzaren eta haien arteko erlazioen emaitza.

**Ibai-erregimena:** Ibaien emariak urtaro batetik bestera izaten duen aldaketa. Erregimena irudikatzeko, grafikoak erabiltzen dira. Beheko ardatzean, urteko hilabeteak kokatzen dira, eta ardatz bertikalean, hileko emarien koefizientea — hilabete bakoitzeko batez besteko emaria urteko batez besteko emariak (modulua) zatituta—.

**Nekazaritzako ustiatzea:** Enpresaburu baten ardurapean nekazaritza-produktuak ematen dituen unitate tekniko-ekonomikoa. Azalera osoa 0,1 ha baino gutxiago bada, ustiatze lurgabea deritzo, eta gehiago bada, berriz, ustiatze lurduna.

**Plataforma logistikoa:** Askotariko operadoreek estatu barneko zein nazioarteko salgaien garraioaren logistikarekin lotutako jarduerak egiteko erabiltzen duten ingurua. Horretarako, zenbait instalazio daude garraiolariantzat eta salgaiantzat, eta bulegoak daude logistikan aritzen diren enpresentzat.